

Bidaiarien sarrerak % 3 eta gaualdiak % 1 gutxitu dira 2003ko maiatzean

Estatutik datozen bidaiariak % 3 gehitu dira, baina atzerrikoak % 15 urritu.

Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan, 138.884 bidaiari-sarrera erregistratu dira 2003ko maiatzean, Eustatek landutako datuen arabera. Zifra horiek erakusten dute % 3ko gutxitzea gertatu dela aurreko urteko hil beraren aldean, hots, 2002ko maiatzean baino ia 5.000 bisitari gutxiago izan direla. Hiru herrialdeetan ez dute bilakaera bera izan bidaiarien sarrerak. Urte arteko gutxitzerik handiena Gipuzkoan eta Araban jazo da (% 5 lurralde bietan); Bizkaian, oster, ez da batere aldakuntzarik izan (% 0).

Estatuko bidaiarien sarrerak % 3 gehitu dira Euskal AE osoan. Atzerriko bidaiarien sarrerak, berriz, % 15 urritu dira. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da hiru herrialdeetan, nahiz eta guztietan berdina ez: % 5 Bizkaian, eta % 2 Araban eta Gipuzkoan. Atzerrikoak gutxitu egin dira hiru herrialdeetan: Araban (% -22), Gipuzkoan (% -17) eta Bizkaian (% -11).

Estatutik datozen bidaiarien artean, gehitu egin dira Madrildik, Euskal AEtik, Balear Erkidegotik eta Gaztela eta Leondik datozenak. Gutxitu egin dira, aitzitik, Valentziako Erkidegotik eta Aragoitik etorriak. Atzerriko bidaiarien artean, urritu egin dira Frantziatik, AEB-Kanadetatik, Herbeheretatik eta Iberoamerikatik etorriak.

2003an erregistraturiko gaualdiak 252.819 dira, hau da, aurreko urteko hil berean baino 3.000 gutxiago; bestela esanda, % 1 urritu ziren. Gaualdiek urte arteko bilakaera ezberdina izan dute hiru lurraldeetan: igo egin dira Bizkaian (% 4) eta jaitsi Gipuzkoan (% -5) eta Araban (% 4).

Euskal AE osorik hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena hobetu egin da, 2002ko maiatzeko 1,78 egunetatik joan den maiatzeko 1,82 egunetara. Luzatze hori hiru lurraldeetan gertatu da: Araban (% 1), Gipuzkoan (% 1) eta Bizkaian (% 4).

Plazen betetze-maila % 8 jaitsi da Euskal AE osoan, lurraldeka bilakaera hau izan duelarik: Araban, % -19; Gipuzkoan, % -9; eta Bizkaian, % -3.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 8) eta gaualdiak (% 14)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.202 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den maiatzean, aurreko urteko hil berean baino % 8 gehiago: % 17 ugaritu dira Gipuzkoan, % 2 Bizkaian, eta % 1 Araban. Euskal AE osoan izandako hazkundera bai Estatutik datozen bisitariak (% 6 gehiago) bai atzerrikoak (% 29 gehiago) eragin dute. Estatuko bisitariak gehitu egin dira Gipuzkoan (% 12) eta Araban (% 6). Atzerrikoak, aldiz, Gipuzkoan (% 63) eta Bizkaian (% 28) ugaritu dira, baina ez Araban, non urritu egin baitiren (% -35).

Euskadiko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 14.633 izan dira maiatzean, 2002ko hil berean baino % 14 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan dira hiru lurraldeetan ere: Gipuzkoan (% 26), Bizkaian (% 6) eta Araban (% 3).

Batez besteko egonaldia, bidaiariko, 6 ehuneko-puntu hobetu da Euskal AE osoan, Gipuzkoan % 8, Bizkaian % 4 eta Araban % 2 hazita.

Betetze-maila, azkenik, % 3 goratu da Euskal AE osoan, Gipuzkoan izandako hazkundearengatik (% 13); urritu egin da, aitzitik, Araban (% -9) eta Bizkaian (% -3).

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	05/2003	%	05/2002	%	Δ%	05/2003	%	05/2002	%	Δ%	05/2003	%	05/2002	%	Δ%	05/2003	%	05/2002	%	Δ%				
HOTEL-EZTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	252.819	100	255.660	100	-1	42.362	100	44.308	100	-4	104.380	100	99.919	100	4	106.077	100	111.433	100	-5				
Estatukoak	180.100	71	172.363	67	4	32.451	77	32.754	74	-1	72.514	69	64.658	65	12	75.135	71	74.951	67	0				
Atzerrikoak	72.719	29	83.297	33	-13	9.911	23	11.554	26	-14	31.866	31	35.261	35	-10	30.942	29	36.482	33	-15				
Hiriburua	163.180	65	166.405	65	-2	32.311	76	31.446	71	3	73.417	70	69.732	70	5	57.452	54	65.227	59	-12				
Kostaldea	33.318	13	33.106	13	1	-	-	-	-	-	11.232	11	11.876	12	-5	22.086	21	21.230	19	4				
Barnealdea	56.321	22	56.149	22	0	10.051	24	12.862	29	-22	19.731	19	18.311	18	8	26.539	25	24.976	22	6				
BIDAIARIEN SARRERAK	138.884	100	143.468	100	-3	24.358	100	25.556	100	-5	55.823	100	55.934	100	0	58.703	100	61.978	100	-5				
Estatukoak	97.994	71	95.145	66	3	18.860	77	18.475	72	2	39.721	71	37.902	68	5	39.413	67	38.768	63	2				
Atzerrikoak	40.890	29	48.323	34	-15	5.498	23	7.081	28	-22	16.102	29	18.032	32	-11	19.290	33	23.210	37	-17				
Hiriburua	88.048	63	92.807	65	-5	16.926	69	16.747	66	1	39.310	70	39.757	71	-1	31.812	54	36.303	59	-12				
Kostaldea	17.333	12	17.188	12	1	-	-	-	-	-	6.028	11	6.799	12	-11	11.305	19	10.389	17	9				
Barnealdea	33.503	24	33.473	23	0	7.432	31	8.809	34	-16	10.485	19	9.378	17	12	15.586	27	15.286	25	2				
B.B. EGONALDIA	1,82		1,78		2	1,74		1,73		1	1,87		1,79		4	1,81		1,80		1				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	43,64		47,67		-8	42,37		52,18		-19	44,51		45,77		-3	43,32		47,81		-9				
Hiriburua	47,11		52,26		-10	47,44		53,87		-12	48,18		49,65		-3	45,63		54,54		-16				
Kostaldea	47,43		44,97		5	-		-		-	41,41		41,91		-1	51,22		46,87		9				
Barnealdea	34,61		38,93		-11	31,54		48,47		-35	35,86		36,99		-3	35,00		36,62		-4				
BETETZE-MAILA GELAKA	55,44		42,59		30	55,90		47,80		17	58,17		46,28		26	52,39		35,96		46				
Hiriburua	60,40		45,59		32	64,27		52,34		23	62,79		48,80		29	54,57		36,01		52				
Kostaldea	54,87		44,10		24	-		-		-	52,77		47,36		11	55,87		41,81		34				
Barnealdea	43,93		34,62		27	33,80		35,09		-4	45,56		36,27		26	46,68		33,40		40				
NEKAZALTURISMOA																								
GAUALDIAK	14.633	100	12.787	100	14	2.390	100	2.311	100	3	5.059	100	4.778	100	6	7.184	100	5.698	100	26				
Estatukoak	13.333	91	11.424	89	17	2.295	96	1.997	86	15	4.690	93	4.233	89	11	6.348	88	5.194	91	22				
Atzerrikoak	1.300	9	1.363	11	-5	95	4	314	14	-70	369	7	545	11	-32	836	12	504	9	66				
BIDAIARIEN SARRERAK	6.202	100	5.732	100	8	1.068	100	1.054	100	1	2.274	100	2.229	100	2	2.860	100	2.449	100	17				
Estatukoak	5.590	90	5.259	92	6	991	93	935	89	6	2.115	93	2.105	94	0	2.484	87	2.219	91	12				
Atzerrikoak	612	10	473	8	29	77	7	119	11	-35	159	7	124	6	28	376	13	230	9	63				
B.B. EGONALDIA	2,36		2,23		6	2,24		2,19		2	2,22		2,14		4	2,51		2,33		8				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	20,49		19,93		3	17,81		19,67		-9	22,63		23,42		-3	20,15		17,79		13				
BETETZE-MAILA GELAKA	23,07		23,11		0	19,29		23,30		-17	24,65		27,58		-11	23,55		20,16		17				

Iturria: EUSTAT